



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2008ko azaroaren 25a

105. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa. Aurkeztutako osoko zuzenketak (2. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, “Vive las verduras” Nazioarteko II. Kongresuarekin zerikusia duen ezer euskaraz idatzita ez egotearen arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, jakiteko zer xederi erantzuten dion Nafarroako administrazio publikoetako langileak euskaraz prestatzeko eskumenak eta eginkizunak bi unitatetan banatzeak. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Unión del Pueblo Navarro alderdiak alderdi eguna Senda Viva parkean ospatu izanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, iragan ekainaren 5ean Bidasoa ibaian izandako olio hidraulikoko isuriak ingurumenean eragindako kalteei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa.

AURKEZTUTAKO OSOKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 129. artikuluan ezarritakoa betez, Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuari aurkezturiko osoko zuzenketak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezzen agindu dut. Proiektu hori 2008ko azaroaren 4ko 97. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2008ko azaroaren 20an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

OSOKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

NAFARROA BAI

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa. Proiektua Gobernuari itzul dakion proposatzen da.

Zioak: Aurrekontuen eranskin gisa aurkeztu den testua, zeinaren bidez aldatzen baitira zenbait zerga, UPN-CDNren Gobernuak aurreko urteetako politikei dagokienez darabilen politika kontinuitaren beste erakusgarri bat da. Kontinuitatea hain da nabarmena non oraingo honetan aurkezten diren neurrien aurretik zenbait zerga aldatzeko foru lege bat onetsi baita.

Kontinuista izateaz gain, arau fiskalen aldaketa hau ezinbestean jo behar dugu kontserbadoretzat eta gizarte-berronak bilatzeko bide eta metodo den aldetik zerga-politikaren ikuspegi progresistaren aurkakotzat.

Hirugarrenik, beharrezkoa da eztabaida lasai bat egitea PFEZaren eta sozietateen zergaren araudiei buruz, behin eta berriro aldatu baitira

azken ekitaldian, hainbat irizpideri jarraikiz aldatu ere, horietako asko koiunturalak.

Edonola ere, zerga-araudiaren egiturak, zeina aurreko gobernuekiko kontinuista baita nagusiki, laneko errentei ordez kapital- eta enpresa-errentei mesede egiten dien tributu-esparru bat sortzen du Nafarroan. Ikuspuntu hori, ahuldu ez ezik, areagotu egin dute azken zerga-aldaketek. Aldaketa horien artean aipatzekoa da, esaterako, zorioneko 400 edo 440 eurokoa, zenbait laneko errententzat dena, bereziki errenta ertainentzat, onura horretatik bazter gelditu baitira gizarteko sektore behar-tsuenak.

Nafarroa Bairen zuzenketek, bai honek bai gairontzeko zuzenketa partzialek ere, helburu dute pertsonen eta, batez ere, krisiak gehien zigortutako gizarte-sektoreei laguntzea eta, aldi berean, administrazioaren zerga-bilketarako ahalmena zaintzea.

Halatan, Nafarroa Baik, jarrera progresista batetik abiatuta, zuzenketa honen bidez ohartarazi nahi du ondareari buruzko zerga indargabetzea oso larria dela, hala kuantitatiboki nola kualitatiboki. Zerga indargabetze hori atzerapauso kualitatibo da zerga politikei dagokienez, jarrera neokontserbatzaile eta neoliberaletaranzko norabidean, doktrinaren aldetik gaitzetsirik daudenak gaur egungo krisi ekonomiko eta sozialaren arduradunak direlako hein batean.

Egiten den deflaktazioa murriztu da, eta, funtsean, UPN-CDNren zerga-eredu jadanik ezarria ontzat jotzea dakar, Gobernuak babesten eta laguntzen duen alderdia ere horretara makurtu baita, pertsonen interesen kontra makurtu ere. Nafarroa Baik neurritzko zuzenketa jakin batzuk proposatzen ditu, guztiz onartzeko modukoak direnak administrazioaren dirubilketa-premiak aintzat hartuz gero eta zuzendu eta aldatuko luketenak fiskalitate kontserbadore bateranzko joera gero eta lerratuagoa.

Zerga alorreko gure autogobernua kudeatzeak eskatzen du, lehenik eta behin, Foru Ogasunaren zerga-bilketarako ahalmenari eustea eta, bigarrenik, gizarte-justizia eta -ongizateko neurriak hartzea, are gehiago hau bezalako krisialdietan; izan ere, langabetuak, gutxieneko pentsioak dituzten pentsiodunak, gazteak, etorkinak eta, oro har, marjintuak eta baztertuak dira krisiaren ondorioak gehien pairatzen ari diren sektoreak. Osoko zuzenketa hau nahiz zuzenketa partzialak aurkeztean, sektore horiek ditu gogoan, batik bat, Nafarroa Baik.

2. ZUZENKETA

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA- NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEA

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa. Proiektua Nafarroako Gobernuari itzul dakion proposatzen da.

Zioak: Foru lege proiektuak jasotzen dituen neurrien artean dago ondareari buruzko zergaren kuota osoaren ehuneko ehuneko hobaria egitea.

Gure ustez, zerga hori kentzea neurri ezegoki eta negatiboa da, kalte egingen baitio Foru Ogasunaren zerga-bilketarako ahalmenari, noiz eta zerga bidezko dirusarrerak izugarri jaitsi diren unean; eta bidegabera ere bada, ez baitio mesede egingen ekonomia- eta ondare-ahalmen handiko zergadunen gutxiengo txiki bati baino.

Rodríguez Zapatero Gobernuako lehendakaria izan da lehena ondareari buruzko zerga baliogabetzea sustatzen. Ondoren, aurrekontu-bazkideek (UPN eta PSN) bat egin dute neurri horrekin Nafarroan.

Neurri bidegabera da (gutxiengo ekonomiko pribilegiatu bati soilik egiten dio mesede), desegokia (kostu handia du, eta egungo ekonomia-desazelerazioa ikusita, ogasun publikoak ezin dio aurre egin), fiskalitatearen ezein ikusmolde progresistarekin hausten duena.

Nafarroak, tributu arloan autonomia baitu, eskumen osoa du Foru Komunitatean zerga hori kentzen den edo mantentzen den erabakitzeko.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkartean uste dugu pertsona fisikoen ondareari buruzko zerga mantendu behar dela.

Gure ustez, Nafarroako gizarteak nahi duena da neurri bidegabe eta ezegoki horretatik alden gaitzen.

Estatuan PSOEek eta Nafarroan UPNk eta PSNk erabakirik makurrena hartu dute.

Erabaki baitute zerga-opari mamitsua egitea gutxiengo ekonomikoki pribilegiatu bati (zergadunek % 3 eskas) eta ogasun publikoa zigortzea, hura izan arren herritar gehien-gehienentzako funtsezko premiak (osasuna, hezkuntza, mendkotasuna...) artatzen dituzten politika publikoak eta zerbitzuak behar adina baliabidez hornitu eta finantzatu behar duena.

Dirubilketa arloko galera 70 milioi euro baino gehiagokoa izanen da.

Nafarroan ez dugu mugatu behar gobernu zentralak zerga alorrean hartzen dituen erabakiak kopiatzera, batez ere hau bezain okerrak badira; hortaz, zerga hori mantentzearen aldekoak gara.

Ez da neurri txiki edo marjinal bat; aitzitik, ondorio ekonomiko eta politiko handiak ditu.

F saila:
GALDERAK

Galdera, “Vive las verduras” Nazioarteko II. Kongresuarekin zerikusia duen ezer euskaraz idatzita ez egotearen arrazoiei buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du “Vive las verduras” Nazioarteko II. Kongresuarekin zerikusia duen ezer euskaraz idatzita ez egotearen arrazoiei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko ekainaren 13ko 55. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko uztailaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du “Barazkiak bizi” Nazioarteko II. Batzarrari buruz (PES-00189). Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Joan zen maiatzean, Barazkiak Bizi Nazioarteko Batzarra egin zen Iruñean. Gastronomiaren,

zientzia eta teknologiaren, nekazaritzako elikagaien sektorearen eta, oro har, gizartearen topagunea da. Ekimenean, enpresa pribatuek eta organismo edo erakunde publikoek hartzen dute parte.

Barazkiak Bizi Nazioarteko Batzarra BioNavarra proiektutik heldu den jarduera bat da. BioNavarrak, izan ere, nekazaritzako elikagaien sektorean biozientzien garapena bultzatzen du. Zehazkiago, batzarra BioNavarraren 3. helburuan du tokia, enpresak sortzeari eta sektoreko negozio-linea berriei buruzkoa baita.

Nazioarteko batzarra denez, oso izaera teknikoa duenez eta Iruñean egitekoa zenez, erabaki zen gaztelania erabili behar zela batzarrerako. Halaber, beharrezkotzat jo zen batzarraren web orrian ingelesezko bertsioa ematea.

Bestalde gogoratu beharrekoa da Nafarroan indarra duten legeen arabera, gaztelania foru erki-degoko hizkuntza ofiziala dela.

Iruñean, 2008ko uztailaren 2an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Galdera, jakiteko zer xederi erantzuten dion Nafarroako administrazio publikoetako langileak euskaraz prestatzeko eskumenak eta eginkizunak bi unitatetan banatzeak.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Paula Kasares Corrales andreak galdera egin du jakiteko zer xederi erantzuten dion Nafarroako administrazio publikoetako langileak euskaraz prestatzeko eskumenak eta eginkizunak bi unitatetan banatzeak.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko ekainaren 20ko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko uztailaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeko foru parlamentari Paula Kasares Corrales andreak galdera egin du Nafarroako administrazio publikoetako langileen euskarazko prestakuntzari buruz (PES-000195/08). Hona Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Jakina denez, Nafarroako Gobernuak Euskarbidea sortzeko erabaki estrategikoa hartu zuen 2007ko irailean; halatan, irailaren 10eko 183/2007 Foru Dekretuan, besteak beste, euskara helduei irakasteko behar diren baliabide pertsonalak, teknikoak eta materialak kudeatzeko eginkizuna esleitu zitzaion Euskarabideari, helduen artean, eta hortaz, logikoa denez, Nafarroako administrazio publikoetako enplegatuen artean. euskara sustatzea helburu. Euskarabidea Hezkuntza Departamentuari atxiki zitzaion.

Arau berri horretan oinarrituta, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institututik (NAPI) Euskarabidera pasatu zen Nafarroako administrazio publikoetako langileentzako euskara ikastaroak emateko eskumena. NAPIk, berriz, prestakuntza arloko kudeaketa orokorra gorde beretzat, haren estatuetan esleitzen zaizkion eskumenak, irailaren 3ko 117/2007 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, laburbiltzearren.

Nabarmendu beharra dago ezen prestakuntza-antolamendu mota hori, prestakuntzaren kudeaketa eta prestakuntza ematea bera bereizten dituen, Espainiako nahiz Europar Batasuneko gainontzeko administrazio publikoetako eskoletan eta institutuetan erabili ohi dela, eta hori horrela da berezko hizkuntza duten autonomia erkidegoetan ere. Eredu hori darabil, hurbileko adibide bat jartzearren, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak (IVAP), euskararen irakaskuntza antolatzeraz, koordinatzeraz eta egiaztatzeraz mugatzen baita.

Eredu horrek, jakina, emandako zerbitzuaren kalitatea hobetzen laguntzen du; izan ere, ikastaroak administrazio-organo espezializatu batek planifikatutako, antolatutako eta egiaztatutako sistema bati jarraikiz ematen direla bermatzen da, modu objektiboan bermatu ere.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 186. artikulua eta hurrengoak betetzeko.

Iruñean, 2008ko ekainaren 30ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilaria: Javier Caballero Martínez

Galdera, Unión del Pueblo Navarro alderdiak alderdi eguna Senda Viva parkean ospatu izanari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Txentxo Jiménez Hervás jaunak galdera egin du Unión del Pueblo Navarro alderdiak alderdi eguna Senda Viva parkean ospatu izanari buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko ekainaren 13ko 55. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko uztailaren 3an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Txentxo Jimenez Hervás jaunak galdera egin du Unión del Pueblo Navarro alderdiak alderdi eguna Senda Viva parkean ospatzeari buruz. Hona Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

1. Senda Vivak informazioa eman zion UPNri, parkean ekitaldiak egiteko interesa zuten beste entitate, enpresa edo kolektiboekin egin zuen bezala, ekitaldiak parkean egiteko baldintza ekonomiko eta teknikoei buruz. UPNren kasuan, baldintzak 2007an alderdiaren eguna parkean ospatzeko eskaini zizkigutenean antzekoak ziren. Oro har, ezartzen dute 3.000 sarrera edo gehiago erosiz gero, haien prezioa leihatilan izaten denaren % 50 izanen dela.

Bestalde, eta ohikoa den bezala, jatetxeetako prezioak (jatorduak) eta bestelako zerbitzuak (jokoak, edariak eta abar) parkean ezarri ohi den tarifaren arabera ordaindu ziren.

2. UPNren sarrera erosita, 3.400 pertsona joan ziren parkera egun hartan.

3. UPNren jaian zeuden pertsonak beren sarrera zeramaten, eta parkeko leihatiletan aurkezten zuten. Gainerakoan, behin barruan zeudenean, bertaratutako guztiek, UPNkoak izan ala ez, parkeko atrakzio eta zerbitzu berak gozatu zituzten. Horrenbestez, ez zen bereizketarik egin.

4. Galderaren edukiaren arabera, alde zuzenetik suposatzen da interferentzia batzuk egon zirela, baina ez zen halakorik egin. Esate baterako, aipa dezakegu 12:00etan UPNren ekitaldi eskuliboa bat izan zela zirkoan. UPN arduratu zen hura

antolatzeaz, bere baliabideekin. Horrek ez zuen inolako interferentziarik sortu, zeren eta ordu horretan ez baitzegoen saiorik zirkoan, parkeko ohiko programari jarraituz. UPNri baimena eman zitzaion parkeko zenbait tokitan kartelak jartzeko, "beren eguna" parkean ospatzen duten beste kolektibo batzuei ematen zaien bezala (Kirolaren Eguna, enpresak, lanbide elkargoak eta abar).

5. Zein merkataritza politikatan kokatzen da akordio hori?

Senda Vivak aurreikusita dauka enpresei, elkartei eta kolektibo handiei lankidetzak akordioak eta kanpainak sustapenak zuzentzea.

Enpresetako marketin politiken barrenean, zenbat eta pertsona gehiago joan parkera, orduan eta baldintzak hobetoagoak izaten dira. Hartara, sarrera ordaindu beharreko 20 pertsonatik gora (5 urte bitarteko adingabeek ez dute denboraldi honetan ordaintzen, parkearen bosgarren urteurrena ospatzen baita), talde bat dela ezartzen da. Aipagai dugun kasuan, hiru mila pertsona baino gehiago joan ziren parkera.

Aurten, 12 urte baino gehiagoko pertsona baten sarrerak 22 euro balio du. Sarrera, aldiz, taldekoa denean (ordaindu beharreko hogeit hamar pertsona, gutxienez), 18 euro izaten da prezioa. Baldintza orokorrez gainera, beharpenak egiten zaizkie elkartei, enpresei, Volkswagen eta CCOO bezalako kolektiboek, familia ugarietara eta abarrei, betiere balizko bisitarien kopuruaren arabera.

Parkeko sarreraren prezioak ezartzerakoan, besteak beste ondokoak hartzen dira kontuan: bisitarien kopurua; adinak eta zerbitzua ematen eta zabalik mantentzen diren atrakzioak; jatetxeetako eremuak eta ordutegiak; enpresak, taldeak edo kolektiboak aukeratzen duen menua, eta abar.

Nire ustez interesgarria da gehitzea Senda Vivako Merkataritza Departamentuak, 2008ko denboraldia hasi baino lehenago, elkarrizketak izan zituela alderdi politiko (PSN, IU eta Nafarroa Bai) eta sindikatu batzuetako arduradunekin, besteak beste, eta parkeko sarrerak eskaini zizkiela ekitaldiak ospatzeko. Elkarrizketetan nabarmendu zen premia puntualak asetzeko prestasuna, bai parkearen dimentsioengatik, bai beraren aniztasunarengatik eta sarrera-eremuak, bilguneak, zirku-ko ekitaldiak eta abar pertsonalizatzeko aukerengatik.

6. Bisitarien kopuruari begiratuta, UPNren egunkoa izan zen parkera joan den talderik handiena. Uda amaieran, Kirolaren Eguna ospatuko da, eta mila pertsona baino gehiago joatea espero da. Joan den urtean, 800 gazte inguru bildu ziren antzeko egun batean.

Halaber, datorren irailean MAPFREk mila langile baino gehiago bilduko ditu, oraindik ere zehaztu gabe dagoen egun batean. Enpresa-talde horrekin eginiko akordioaren arabera, MAPFREk estatuko iparraldean dauzkan bulegoak (300 egoitza baino gehiago) Senda Vivaren informazio gune gisa erabiliko dira, eta baldintza bereziak jarriko zaizkie asegurudunei.

Denboraldi honetan, Senda Vivak bere instalazioak promozionatu ditu (12 urte baino gutxiagokoei bi sartzeko aukera baten prezioan eta 12 urtetik gorakoentzat 3 euroko beherapena) Zaragozako eta Errioxako jai autonomikoetan, eta mila pertsona baino gehiago etorri dira bi kasuetan.

Denboraldi honetan, honakoak izan dira Senda Vivara bisitan etorri diren talde handienak, parlamentu-galdera honen erantzuna egiteko tenorean: Iberdrola (Castejón), Mutua Navarra eta Diario de Navarra, bakoitzetik ehun bisitari baino gehiagorekin.

Era berean, kolektibo gisa, Senda Vivara joaten dira, esate baterako, lanbide elkargoak eta jubilatuen elkarteak, batzuetan finantza-entitateek antolatutako txangoetan (Arkupeak; Nafarroako ingeniari teknikoak; Aragoi, Nafarroa eta Errioxako telekomunikazioko ingeniariak; ingeniari

industrialak, Nafarroako Kutxako eta CAIko klubak eta abar).

Ikastetxeentzako sustapen bereziak izaten dira, nahiz eta haiek ere, berez, taldeak izan. Natura ibilbide gisa egiten dira bisita horiek (betiere egunko bisitarien kopuru partzialaren eta guztizkoaren arabera), atrakzio batzuekin edo parte guztiz irekita, kasuan kasu. Aurten, honako ikastetxeak etorri dira, ikasle kopuruaren arabera:

- Iruñeko Amigot: 335 bisitari.
- Santo Domingo (Zaragoza): 166 bisitari.
- Parque Europa (Utebo) Zaragoza: 154 bisitari.

Denboraldi honetan, guztira, 138 guraso-elkar-te eta bestelako elkarterekin egin dira kontratuak, eta 8.400 pertsona etorri dira horien ondorioz. Ikastetxeei dagokienez, 184 ikastetxe eta 12.500 ikasle etorri dira parkera.

Halaber, nabarmentzekoa da geure ekimenez parkeak egin duen gizarte lana, aisia arduratsuen alde eginikoa. Izan ere, zenbait kolektibo berezi gonbidatu ditugu: udan zehar Iruñean egoten diren haur sahararrak, diru-baliabide urriak dituzten minusbaliatuen elkarteak.

Halaber, kanpaina berezietan, doako gonbita eginez edo sarrera modu onean ordainduta, beste batzuen erakarle izan daitezkeen kolektibo batzuk etorri dira: alkate eta hautetsiak, ostalariak, irakasleak...

Iruñean, 2008ko uztailaren 2an

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria:
José María Roig Aldasoro

Galdera, iragan ekainaren 5ean Bidasoa ibaian izandako olio hidraulikoko isuriak ingurumenean eragindako kalteei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du iragan ekainaren 5ean Bidasoa ibaian izandako olio hidraulikoko isuriak ingurumenean eragindako kalteei buruz.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113.1 artikuluan ezarritakoa betez, galdera horren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut. Galdera argitaratu zen 2008ko ekainaren 13ko 55. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2008ko uztailaren 4an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

ERANTZUNA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Aitor Etxarri Pellejero jaunak galdera egin du Bidasoa ibaian izandako olio hidraulikoko isuriak ingurumenean eragindako kalteei buruz (PES 192/08). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna:

1.- Zein izan dira isuriak ingurumenean eragindako kalteak?

800 bat litro olio hidrauliko isuri ziren, eta ez zen hauteman ez arrain hilik ez bestelako eraginik

ibai-faunan. Isuriaren ondoko egunetan eginiko jarraipenean, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren Zainketa Zerbitzuak ez zuen olio arrastorik aurkitu ez ibai-ibilguan ez ibai-bazterretan.

2.- Gertakari horiei buruzko akta eta txosten guztien kopiak nahi genituzke.

Erantzun honi erantsirik doaz Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Departamentuan jasota ageri diren ondoko txostenen kopia: Bidasoamugapeko Basozaintzak eginiko txostena, zeinean jasota baitago Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak eskatuta Zalain Transformados enpresak eginiko txostenaren kopia.

Hori jakinarazten dizut Legebiltzarreko Erregelamenduaren 192. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2008ko uztailaren 1ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Begoña Sanzberro Iturriria

Oharra: aipatutako eranskina foru parlamentarien eskura dago 7-07/PES-00192 espedientean, ondoko web helbidean hain zuzen: <http://actividad.parlamento-navarra.es:8080/AgoraWeb/>

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete	47,00 euro
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko	1,25 »
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko	1,40 »